

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Culturrek beste lau jarduera programatu ditu asteburu honetarako Elizondon, Zangozan, Orbaizetan eta Orreagan

Zabalik daude oraindik Agoizko Mikel Esparzaren, Los Arcoseko Iruña Cormenzanaren eta Bertizko Jaurerriko Javier Suescunen erakusketak

Jueves, 28 de julio de 2011

2011ko Cultur programaren barruan beste lau jarduera egingo dira asteburu honetan Nafarroako leku turistikoetan. Elizondoko Merkatu plazan herrikiroren ikuskizuna egongo da Nafarroako Herri Kirol Federazioaren eskutik. Larunbatean, uztailak 30, izango da, 19:30ean. Larunbatean, uztailak 30, Zangozako Vallesantoro Jauregian, "Piazzola 180 grados" Jazz taldeak emanaldia eskainiko du 20:30ean.

Igandean, uztailak 31, Orbaizetako Arrazola Inguruan Muthiko Alaiak fanfarrearen kontzertua egongo da eta, Orreagan, Quinteto Clásico Pamplona ganbera musika taldea entzun ahal izango da, Kolegiata Errege Elizan. 13:00etan izango da.

Zabalik daude oraindik Agoizko Mikel Esparzaren, Los Arcoseko Iruña Cormenzanaren eta Bertizko Jaurerriko Javier Suescunen erakusketak.

Cultur Nafarroako Gobernuaren programa da eta, programa horren barruan, ganbera musikako, koruen, jazz eta folk estiloko kontzertuak, pintura erakusketak, dantza erakustaldiak, herrikiroren ikuskizunak eta artisautza erakusketak antolatzen dituzte interes turistikoko lekuetan, bisitariaren egonaldia atseginagoa izateko.

"**Quinteto Clásico de Pamplona**" taldea 1993an sortu zuten lau musikarik. Guztiak gaur egun Nafarroako Oskestra Sinfonikoa den "Santa Cecilia" orkestrako kideak izan ziren. Oskestrako kideek ganbera musikako taldea sortu zuten eta estatuko hainbat probintzian eskaini dituzte emanaldiak. Barroko garaiko obretatik hasi eta gaur egungo musika biltzen duen erreperitorioa dute eta, horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako konpositoreen obra ahaztuak ere berreskuratu dituzte..

Piazzolla 180 grados Astor Piazzola musikari argentinarra omentzen duen ikuskizuna da, musikaria jaio zela 90 urte bete baitira. Hainbat formatutan, musikari horren zenbait kanta ezagun interpretatzen dituzte. Abesti horiek tangoa goitik behera aldatu zuten, musika klasikoa, tangoa eta jazz modu harmonikoan bateratu zituenean.